

Zenbakiaren erabilera ipuin unibertsaletan

Iera Arrieta Kortajarena

Euskal Herriko Unibertsitatea

Matematika Aplikatua Saila

Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa

GAKOA-HITZAK: Ipuin unibertsalak Zenbakiak. Lehen hezkuntza.

1. SARRERA

Ipuin unibertsalak aztertzeko garaian interesgarria iruditu zait ipuinetan agertzen diren zenbakiaren erabilera ikertzea: alde batetik, zenbakiaren erabilera ugaria den ala ez ikustea; bestalde, gehien eta gutxien agertzen diren zenbakiak zeintzuk diren aztertzeko; eta azkenik, zenbakiaren erabilienaren interpretazioa egitea.

Azterketa hau egiteko 17 ipuin aukeratu ditut. Lehenik eta behin, ipuin guzti hauek irakurri eta bertako zenbakiak zerrendatu ditut. Jarraian, zenbaki horien maiztasunen azterketa egin dut; eta azkenik, gehien agertu diren zenbakiaren interpretazioa.

Bukatzeko, egindako azterketa guztia erabiliz, zenbait ondorio atera ditut, galdera nagusi honi erantzunez:

«Ipuin unibertsaletan, zenbakiak ba al dute erabilpen eta esanahi berezirik?»

Beraz, lan honek bi helburu nagusi ditu:

1. Ipuin unibertsaletan agertzen diren zenbakiaren lokalizazioa eta zerrendaketa.
2. Ipuin unibertsaletan gehien agertzen diren zenbakiaren azterketa eta interpretazioa.

Bi helburu nagusi hauekin, tradiziozko ipuingintzan zenbakiak esanahi edo jokaera bereziren bat izan duten aztertu nahi da.

2. AUKERATUTAKO IPUINAK

Aurretik aipatutako ikerketa hori egiteko 17 ipuin unibertsal aukeratu ditut. Hautaketa hori egiteko garaian hiru irizpide hauek erabili ditut:

Alde batetik, ipuin unibertsalen zerrenda amaigabetik ezagunenetarikokak direnak hartu ditut, ordezkari-lanak egiteko egokienak izan daitezkeela iruditzen zaidalako. Bestalde, izenburuetan zenbakiren bat agertzen den ipuinak aukeratu dira, ipuin barnean zenbakiak agertzeko probabilitatea handiagoa izango dela suposatu baitaiteke. Eta azkenik, egile ezberdinen ipuinak hautatzen saiatu naiz, idazle bakoitzak erabilitako zenbaki-joerak konparatu ahal izateko; aukeratutako ipuinak idazle bakarrarenak balira ez litzake bereizgarria izango, idazle bakoitzak zenbakiak modu propio batean erabiltzeko joera izango baitu (sarritan, gutxitan, zentzu espezifiko bat emanez...).

Hona hemen aukeraturiko ipuinen zerrenda:

| | |
|---|---|
| A | Txanogorritxo (Perrault) |
| B | Errege-igela (Grimm anaiak) |
| D | Mariesrrauskin (Perrault) |
| E | Marixor |
| F | Enperadorearen jantzi berria (Andersen) |
| G | Hansel eta Gretel (Grimm anaiak) |
| H | Mendekoste gereziak (Etxepare) |
| I | Izaia (Andersen) |
| J | Txori harrigarria (Grimm anaiak) |
| K | Urrezko arraultzedun oiloa |
| L | Sirenatxoa (Andersen) |
| M | Arrantzalea eta bere emaztea (Grimm anaiak) |
| N | Ali Baba eta 40 lapurrak (anonimoa) |
| O | Ahate itsusia (Andersen) |
| P | Edurne zuri (Grimm anaiak) |
| R | Hiru txerritxoak (herrikoia) |
| S | Urrezko ile-kizkurra (herrikoia) |

3. IPUINEN AZTERKETA

Aurrean aipaturiko ipuinen irakurketa egin eta gero, ondorengo taulan jaso dira bakoitzean aurkitutako zenbakiak. Zenbakiak adierazteko garaian bere testu ingurua mantendu nahi izan da, zenbakiaren esanahia edota erabilpena argiago azal dadin.

Jarraian datorren taulak datu berak biltzen ditu baina alderantziz. Hau da, ipuinen arabera sailkatu beharrean zenbakien arabera sailkatuko dira oraingoan; horrela, zenbaki bakoitza zenbat aldiz agertzen den argiago erakutsiko du, eta baita, zein zenbaki diren gehien agertzen direnak ere.

| | | | | | |
|---|------------------------------|--|---|------------------------------|--|
| A | Txanogorritxo | 3 egun | J | Txori harrigarria | 3 neskatila |
| B | Errege igela | 2 atzamarrekin 7 zaldi 3 uhal bihotzaren inguruan | K | Urrezko Arraultzedun oiloa | gauza 2 arraultze 2 |
| D | Marierrauskin | 2 alaba 100 bider ederragoa 2 tontor 2 egun 12 lokarri baino gehiago 6 sagu 3 arratoi 6 musker 11 kunplimendu 11 saio | L | Sirenatxoa | 12 ostra 6 neskatxa 15 urte 100daka iturri 6 ostra 3 mastako itsasontzia 100 suziritik gora 300 urtera 100 urte 2 euskarri 100daka maskor 1.000ka arrain 100 buruko sugea 100daka beso 2tan banatu 2 ahoko ezpata 1.000 zatitan puskatu 1000ka musu 100daka izakitxo |
| E | Mari Xor | 3 alaba 2 alaba eta seme bat 3 eguneko festak 2 musu | M | Arrantzalea eta bere emaztea | 2 oheko gela 8 edo 15 egun 2 aldetara 6 neska 2 pisu 2naka ilaran 1000ka argi urrezko koroa 3koitza |
| F | Enperadorearen Jantzi berria | 2 pikaro 2 ehundegi 2 funtzionario 16 kandela | N | Ali Baba eta 40 lapurrak | 2 anaia 40 zaldun 40 lapur 10 asto 2 emazte 19 asto eta 37 zahagi |
| G | Hansel eta Gretel | 2 haur 2 atal 3. egunbetea 4 aste 4 aldetara | O | Ahate itsusia | 6 ahate eder 7 ahate |
| H | Mendekoste Gereziak | 2 haur 10na urte 3 etxe 4 haur bi milatia 10 bat gatu 10 bat astez 2 oren 1.000 indarrek sustaturik 2 zangoetatik | P | Edurne zuri | 7 ipotx |
| I | Izaia | 2 negu 3. negua 100daka argi 2 loreontzi 100dik gora kandelatxo beste 4 sagu 2 arratoi | R | 3 Txerritxoak | 3 txerritxo |
| | | | S | Urrezko ile-kizkurra | 3 artzatxo 3 katilu |

Ipuinak hizkien bidez zenbatu ditut, zutabeetan. Ilaretan berriz, zenbakiak kokatu ditut. Laukitxoetan, ipuinetan zenbaki bakoitza agertzen den kopurua adierazten da. Azken zutabeetan, zenbaki bakoitzaren maiztasuna kalkulatu da.



1 zenbakia ez da kontuan hartu. Argi dago, «bat» askotan agertzen dela ipuinetan baina ez beti zenbaki moduan. «Gizon bat» esaterakoan, adibi-

| | Txanogorritxo | Errege-igela | Marietauskina | Marixor | Enperadore... | Hansel eta ... | Mendekoste... | Izaia | Txori... | Urrezko... | Sirenatxoa | Arrantzalea... | Ali Baba... | Ahate itsusia | Edume zuri | 3 txerrikoak | Urrezko ile... | Zenbaki bakoitzaren maiztasuna 17 ipuinetan |
|--------------------------------------|---------------|--------------|---------------|---------|---------------|----------------|---------------|-------|----------|------------|------------|----------------|-------------|---------------|------------|--------------|----------------|---|
| | A | B | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O | P | R | S | |
| 2 | | 1 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 3 | | 2 | 3 | 4 | 2 | | | | | 28 |
| 3 | 1 | 1 | 1 | 2 | | 1 | 1 | 1 | 1 | | 1 | 1 | | | | 1 | 2 | 14 |
| 4 | | | | | | 2 | 1 | 1 | | | | | | | | | | 4 |
| 5 | | | | | | | | | | | | | | | | | | 0 |
| 6 | | | 2 | | | | | | | | 2 | 1 | | 1 | | | | 6 |
| 7 | | 1 | | | | | | | | | | | | 1 | 1 | | | 3 |
| 8 | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | 1 |
| 9 | | | | | | | | | | | | | | | | | | 0 |
| 10 | | | | | | | 3 | | | | | | 1 | | | | | 4 |
| 11 | | | 2 | | | | | | | | | | | | | | | 2 |
| 12 | | | 1 | | | | | | | | 1 | | | | | | | 2 |
| 13 | | | | | | | | | | | | | | | | | | 0 |
| 14 | | | | | | | | | | | | | | | | | | 0 |
| 15 | | | | | | | | | | | 1 | 1 | | | | | | 2 |
| 16 | | | | | 1 | | | | | | | | | | | | | 1 |
| 17 | | | | | | | | | | | | | | | | | | 0 |
| 18 | | | | | | | | | | | | | | | | | | 0 |
| 19 | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | 1 |
| 20 | | | | | | | | | | | | | | | | | | 0 |
| 37 | | | | | | | | | | | | | 1 | | | | | 1 |
| 40 | | | | | | | | | | | | | 2 | | | | | 2 |
| 100 | | | 1 | | | | | 2 | | | 7 | | | | | | | 10 |
| 300 | | | | | | | | | | | 1 | | | | | | | 1 |
| 1.000 | | | | | | | 1 | | | | 3 | 1 | | | | | | 5 |
| Zenbaki maiztasunak ipuin bakoitzean | 1 | 3 | 10 | 4 | 4 | 5 | 9 | 7 | 1 | 2 | 19 | 9 | 7 | 2 | 1 | 1 | 2 | 87 |

dez, «bat» horrek zenbatzeko helburua duen ala ezin da jakin; ez dago garbi «bi gizon»en ordez «gizon bat» esan nahi den, edo emakumearen ordez gizona dela adierazi nahi den. Bereizketa hori idazleak berak egin beharko luke, «bat» erabilitako bakoitzean zein esanahi eman nahi izan dion adiera-

zita. Baina horrelakorik egin ezin dugunez, «bat»a baztertzeko erabakia hartu da.

Datu hauek hurrengo diagrametan jaso dira. Lehenengo grafikoan zenbaki bakoitza ipuin guztietan zenbat aldiz ateratzen den agertzen da; bigarren grafikoan, berriz, ipuin bakoitzean agertzen den zenbaki kopurua adierazten da:



4. EMAITZAK

Aurreko orrialdeko taulan eta aurreko grafikoan garbi ikusten da gehien agertzen diren zenbakiak 2, 3 eta 100 direla, orden horretan.

Zenbaki erabiliena, dudarik gabe, 2 da; hogeita zortzi aldiz agertzen da, eta hamazazpi ipuinetatik hamaikatan. Bigarren zenbaki erabiliena 3 da. Hamalau aldiz agertzen da, hamabi ipuinetan sakabanaturik. Hirugarren zenbaki 100 da; hamar aldiz agertzen da, baina kasu honetan, ipuin bakarrean zazpi aldiz ageri da.

Ipuinen aldetik begiratuta, bigarren grafikoan ikus daitekeen bezala, zenbaki gehien agertzen den ipuina «Sirenatxoa» da. Bertan, hemeretzi zenbaki agertzen dira eta horietatik hamaika 100 edo handiagoak. Kontuan hartu behar da orrialde gehien dituen ipuina ere «Sirenatxoa» dela, beraz, logikoa dirudi zenbaki kopuru handiena berak edukitzea. Zenbaki gehien dituen bigarren ipuina «Marierrauskin» da, hamar zenbakirekin; zazpi orrialdetako (gutxi gora behera) ipuina da, beraz, proportzioz, «Sirenatxoa»n baino zenbaki gehiago agertzen dira. Beste ipuin guztiek proportzio antzekoa jarraitzen dute, bi orrialdetik zenbaki bat; beraz, ez dago berezitasun handirik. Kasu arraroena «Ali Baba eta 40 lapurrak» ipuinean ematen da, «Marierrauskin»ekin batera, proportzio mailarik handiena duen ipuina baita: zazpi zenbaki bost orrialdetan. Gainera, ipuin honetan, beste inon agertzen ez diren zenbakiak agertzen dira: 19, 37 eta 40.

10a bitarteko ia zenbaki guztiak agertzen dira ipuinen batean; 5 eta 9 dira inon ageri ez diren bakarrak. 20a bitartean, berriz, 13, 14, 17 eta 18 dira inon ez daudenak. Aipatzekoa da zoritxarrekotzat hartzen den 13 zenbakiaren desagertzea.

Bestalde, aipagarria da, baita ere, 20a bitarteko zenbaki lehenen erabilera. 2 eta 3 zenbakiak alde batera utzita, 20a bitarteko zenbaki lehenak 5, 7, 11, 13, 17 eta 19 dira; horietatik 7, 11 eta 19 besterik ez dira agertzen (erdiak). Gainera, 19 zenbakia «Ali Baba» ipuinean dago, eta esan dugu lehen hau kasu berezia dela, eta beraz, bazter dezakegu. 11 zenbakia, berriz, bi aldiz erabili da, baina biak ipuin berean (Marierrauskin-en); eta kasu horretan ez dira erabili zenbatzeko, ugaritasuna adierazteko baizik. Geratzen zaigun zenbaki lehena 7 da; zineman, literaturan eta erlijioan betidanik izan duen garrantziaz aparte, zenbaki hau jende askoren gustukoa ere bada, eta beraz, logikoa dirudi bere erabilera ugaria. Guzti honekin argi ikusten da ez dela ohikoena zenbaki lehenen erabilera ipuinetan.

Orokorrean, zenbakiak zenbatzeko erabiltzen dira ipuinetan. Kasu bakan batzuk besterik ez daude esanahi bereziren bat dutenak. 100 edo gora-goko zenbakiak erabiltzean, berriz, ugaritasuna adierazi nahi da, lehen aipaturiko 11 zenbakiarekin gertatzen den moduan. Kontatzeko erabili den 100 baino handiagoko zenbaki bakarra 300 da; hau «Sirenatxoa»n agertzen da eta behin bakarrik ageri da; beraz, ez da esanguratsua.

Laburbilduz:

—Zenbaki erabilienak:

- 2: 27 aldiz 11 ipuinetan.
- 3: 13 aldiz 12 ipuinetan.
- 100: 10 aldiz 3 ipuinetan.

—Ipuinen arabera:

- «Sirenatxo»: 18 zenbaki; horietatik 11, 100 edo handiagoak.
- «Marierrauskin»: 10 zenbaki; gehiena orrialde kopurua kontuan hartuta.
- «Ali Baba eta 40 lapurrak»: 7 zenbaki 5 orrialdetan; beste inon agertzen ez diren zenbakiak: 19, 37, 40.

—Zenbaki lehenen erabilpena urria da.

5. ZENBAKI ERABILIENEN INTERPRETAZIOA

Lehenik eta behin 1 zenbakiaren erabilera aztertuko dugu. 1 zenbakia behin eta berriz agertzen da ipuinetan, bai zenbaki moduan eta baita determinatzaile edo mugagabe moduan ere. Perurenaren «Euskarak sorgindutako numeroak» (1993, 45. orr.) liburuan *bataren* esanahi sinbologikoaz hitz egiten da: «*batak, beste inork ez bezela, munduan zutunik eta mindurik ageri den sorkari berezi hori sinbolizatzen du: gizona*». Adibide ugari jarri daitezke 1 zenbakiaren erabilera ezberdinak ikusteko: ohe bakar *bat*, hain*bat*, *bat*-batean, seme *bat*, sagarren *bat*, *bata* ala bestea, bide *batez*, *bat* etorri, *batek* daki, *batzuk*... Ikus daiteke «bat»aren erabilera mugatua ala mugagabea izan daitekeela, Azkue-k (1969) baieztatu zuen bezala. Beraz, argi ikus dezakegu «bat»ak erabilpen benetan zabala duela eta ez dela zenbaki moduan soilik erabiltzen; horregatik erabaki da lan honetan «bat» baztertzea.

1 zenbakiaren kasua alde batera utzita, lehen esan dugun moduan 2, 3 eta 100 dira gehien agertu diren zenbakiak. Azter dezagun banan-banan hiru zenbaki hauen erabilpena eta interpretazioa:

—2 zenbakia

Gehien agertzen den zenbakia da. 2aren esanahiari dagokionez, «*zenbaki hauskorra*» dela dio Perurenak bere liburuan (1993, 63. orr.), «*gatazkaren, gogoetaren eta antzeko egitate askoren adierazle*». Emakumearen edo emetasunaren zenbakia ere badela dio; bere ustez, *bia* emakumearen edertasuna goraiatzeko erabili ohi da. Bestalde, giza gorputzaren erroa ere *bia* dela kontuan hartu behar da, gure gorputzaren osagai gehienak *bi* direlako: bi begi, bi belarri, bi beso, bi hanka... Horregatik, logikoa da zentzu horretan ere erabilpen ugaria izatea zenbaki honek.

Bestalde, aipatzekoa da «bi»ak (eta ez beste edozein zenbakik) har dezakeen kokapena, Arruek (1956) dioen moduan, gipuzkeraz eta bizkaieraz behintzat, izenaren aurretik edo ondotik erabili baitaiteke. Aztertutako ipuinetan badugu horren adibiderik; ipuin guztietan izenaren aurretik dago, «Urrezko arraultzedun oiloa»n izan ezik, bertan, *gauza bi* eta *arraultze bi* agertzen baitira.

Ipuinetan hartzen duen kokapenean ere badu «bi»ak berezitasunik, ipuinen sarreratan ageri baita maiz, protagonistak diren seme-alaba kopuruan. Perurenaren hitzetan (1993, 71. orr.), honen arrazoia ondokoa da: «*Izan ere, ipui ororen funtsa, morala baita, eta moral deusek erabakitzen badu, alderdi on eta gaitz horietxek “biek” gorpuzten izaki*». Gure ipuinetatik laueta aurki dezakegu halako adibiderik: «Ali Baba»n *bi anaia* ditugu, «Marierrauskin»en *bi alaba* eta «Mendekoste gereziak» eta «Hansel eta Gretel» ipuinetan *bi haur*:

Ikus dezagun orain, aztertutako ipuinetan, 2 zenbakiak izan duen erabilera eta esanahia:

«Errege-igela» ipuinean «*printzesak igelari bi atzamarrekin altxatu zuen*» agertzen da. Kasu honetan, igela bi atzamarrekin hartzearekin, printzesak igelari dion higuina agerian geratzen da. Normalena igela esku osoarekin hartzea izango litzateke, baina, hemen, bi atzamarrekin soilik jasoz, nabarian geratzen da igela batere gogoko ez duela.

«Marierrauskin» ipuinean aitak Mariari *bi musu* ematen dizkio; kasu honetan, argi dago bi musu ematearen arrazoia gorpuztaren aldebikotasuna dela.

«Mendekoste gereziak» ipuinaren amaieran, neska gazteak atsoa *bi zangoetatik* hartzen du. Berez, nahikoa litzake *atsoa zangoetatik hartu* jar-tzea, badakigulako bi dituela, baina *bia* gehituz, ekintzari indarra eta nekari nagusitasuna ematen zaio.

«Izaia»n, *bi negu* igaro zirela agertzen da; *bi* hori ez da zenbatzeko erabili, baizik eta iragandako denbora luzea izan dela adierazteko.

«Sirenatxoa»n «*bi ahoko ezpata bezain zorrotza*» ageri da. Kasu honetan garbi dago *biaren* erabilera ezpataren zorrotzasuna azpimarratzeko dela.

Agertzen diren beste *bi* guztiak zenbatzeko erabili dira, eta batez ere, pertsonak zenbatzeko (seme-alabak normalean); hauek ez dute esanahi edo interpretazio berezirik.

—3 zenbakia

Bigarren kopuru handiena duen zenbakia da. Perurenaren hitzetan (1993, 79.orr.), «*Inolako zalantzarik gabe esan liteke hirua dela giza sines-tetan ugarien ageri den numeroa*» da; Kristautasunaren magikotasun nagusia ekialde zaharretik datorren «*hiruaren batasun*»ean (kristau-gurutzean arrasto horizontal eta bertikalak bat egiten direneko puntuan) oinarritzen

dela dio, Jainkotasun bakar batean biltzen baitira Aita, Semea eta Espiritu Santua. Orokorrean, batasunaren eta osotasunaren adierazle dela esan dezakegu.

Ikus dezagun aztertutako ipuinetan zenbaki honek hartzen duen esanahia:

Hamazazpi ipuinotan lau esanahi ezberdin hartzen ditu *hiruak*: lehenengoak nolakotasunarekin du zerikusia; bigarrena denboraren iraupena neurtzeko erabiltzen da; hirugarrena indarra eta garrantzia emateko; eta azkenekoa, zenbatzaile soila da.

Lehenengo kasuan adibide bakarra dago, «Errege-igela» ipuinaren amaieran agertzen den «*hiru uhal bihotzaren inguruan*» esaldian. Istorio honetan printzea igel bihurtzen da eta horren ondorioz, Henrike (bere morroia) oso goibeltzen da; eta bere bihotza tristuraz ez lehertzeko hiru uhal jarrarazten ditu bihotzaren inguruan, nagusiarekiko duen mirespena agerian utziz. Kasu honetan, «hiru»ak esanahi sinbolikoa du, metafora horren bidez Henrikeren goibeltasun maila itzela dela adierazi nahi baita.

Bigarren esanahia behin baino gehiagotan agertzen da. «Txanogorritxo»n, adibidez, *hiru egun baino gehiago* ezer jan gabe pasatzen dituela azaltzen da; horrekin adierazi nahi da denbora luzez egon zela ezer jan gabe eta dramatismo kutsua gaineratzen dio. Beste adibide bat «Marixor»en ikus daiteke: *hiru egunetako festak* aipatzen dira bertan, horrekin festa giroa luzarotan eman zela adierazi nahi da; hala ere, esamolde horrek euskal ohiturekin badu zerikusirik, orain dela gutxi arte herrietako festak hiru egunekoak izaten baitziren.

Hirugarren esanahia duten pare bat adibide aurki ditzakegu: bata «Sirenatxoa»n, hiru mastako itsasontzia aipatzean, itsasontziaren tamaina handia nabarmendu nahi da. Beste adibidea berriz, «Arrantzalea eta bere emaztea»n ikus dezakegu; bertan, emazteak *urrezko koro hirukoitza* dauka; horrekin, emazteari handitasuna eta boterea ematen zaio.

Adibide guzti hauetaz aparte, erabiliena izan den interpretazioa, berriz ere, zenbakiarena da, ia beti *hirua* zenbatzeko erabilia izan baita ipuinetan.

—100 zenbakia

Zenbaki hau hamar aldiz agertzen da ipuinetan; hirugarren kopuru handiena du. Perurenak dionez, zenbaki hau magikoa da aspalditik; baina bere magikotasunaz gain, «*gure artean, ohiz besteko neurriak eta mailak adierazteko erabilia*» izan dela dio (1993, 321. orr.); bere liburuan agertzen denez, Peillenen hitzetan, zubereraz «ehunetan», «bigabostetan» eta «askotan» zentzu berbereko esamoldeak dira; baina erabilera hau euskaratik kanpo ere ematen dela baieztatzen du Chevalierrek (1995).

Aztertutako ipuinetan ere guztiak esanahi horrekin izan dira erabiliak, hau da, ugaritasuna eta ohi baino neurri handiagoak adierazteko (Saá,

2002). Adibide batzuk: «*Marierrauskin ahizpak baino ehun bider ederra-
goa zen*»; «*Sirenatxoa*»ko itsasoan, berriz, *ehundaka maskor, ehundaka
izakitxo, ehun buruko sugea...* ageri dira.

Hiru zenbaki hauen azterketa zehatza egin ondoren, ikus dezagun beste
zenbakiak hartzen dituzten esanahiak zeintzuk diren:

Ehun zenbakiarekin gertatzen den bezala, badira beste zenbaki ba-
tzuk ere esanahia bera hartzen dutenak, hau da, ugaritasuna edota epe lu-
zeak adierazteko erabiltzen direnak. Ugaritasunaren zenbait adibide ikus
ditzagun: «*Marierrauskin*»en *hamabi lokarri baino gehiago* apurtu zituz-
tela agertzen da, eta baita «*hamaika kunplimendu egin*» zizkietela ere.
Kasu hauetan garbi dago ez direla zenbakiak zenbatzeko erabiltzen, uga-
ritasuna adierazteko baizik. Epe luzeen adibideak, berriz, hauek dira:
Hanseli *lau astetan* janari mordo eman zion sorginak, eta «*Mendekoste
gereziak*» ipuinean ere, Pello *hamar bat astez* egon zen handitzen eta
gizentzen.

1000k, gure usadioan, 100 zenbakiaren erabilpen eta esanahi berbera
izan du; ipuinetan ere hala ageri da, kopuru erraldoiak eta ohi baino gaita-
sun hobeak adierazteko erabiltzen da, alegia.

Amaitzeko ikus ditzagun bi kasu berezi:

Aurretik ikusi dugu zenbait zenbaki denboran epe luzeak adierazteko
erabiltzen direla. Denboraren ordeztoki zabalak adierazteko, ordea, ez
dugu ezer ikusi. Adibide bakarra dago: «*Gretelek perlak eta harri-pitxiak
lau aldetara jaurti zituen*». Kasu honetan, *lau* horrekin perlak eta harri-pi-
txiak, bere inguruan, leku guztietara bota zituela adierazi nahi da.

Beste kasu berezia «*Arrantzalea eta bere emaztea*»n ageri zaigu: «*zor-
tzi edo hamabost egun ziren igaroak*» esaldian; hemen ere, zenbakiak ez
dute zenbatzaile lana jokatzeko; kasu honetan *zortzi edo hamabost egun*
esatearekin, zenbait egun pasa zirela adierazi nahi da, besterik gabe.

6. ONDORIOAK

Azterketa hau egin eta gero, ondorio honetara iristen gara: ipuin uni-
bertsaletan zenbaki gehienak zenbatzeko erabili izan dira eta oso gutxi dira
esanahi bereziren bat hartu dutenak; 100 eta 1000 zenbakiak dira nagusiki
zenbatzeko erabiliak izan ez direnak, bi zenbaki hauek normala baino ta-
maina edo kopuru handiagoak adierazteko balio izan baitute.

Ipuinen aukeraketan ezarritako irizpideei buruz zera esan dezakegu:
idazle guztiek modu eta maiztasun antzekoarekin erabili izan dituzte zen-
bakiak beraien ipuinetan; eta izenburuan zenbakia duten ipuinek ez dute-
nen maiztasun berbera dute.

Jasotze-data: 2005-06-20

Onartze-data: 2006-12-16

This paper talks about the sense of the numbers appeared in traditional tales. For this aim, we have selected seventeen tales that agree, at least, with one of the following criteria: the tales must be known, they could have numbers in the title, or the tales must be written by different authors. We have elaborated a list with all the numbers appeared in those tales (with their own context), and we have studied their frequencies. The tale with more numbers is «The little mermaid», and the numbers more used (except 1, that not always expresses quantity or order) are 2, 3 and 100, in that order. This study finishes with an interpretation of each of these three numbers.

Keywords: *Universal Tale. Numbers. Primary Education.*

Este artículo trata de analizar los números que aparecen en los cuentos tradicionales; para ello se han seleccionado diecisiete cuentos. La elección se ha hecho siguiendo, al menos, uno de estos criterios: que sean cuentos conocidos, que aparezcan números en los títulos, o que sean cuentos de distintos autores. Se ha elaborado un listado con todos los números aparecidos en los cuentos en su propio contexto, y se ha efectuado un análisis de sus frecuencias. El cuento donde aparecen o se citan más números es «La Sirenita», y los números más utilizados (exceptuando el 1 que no siempre expresa cantidad u orden) son el 2, el 3 y el 100, en ese orden. El análisis se completa con una interpretación de cada uno de estos tres números.

Palabras clave: *Cuentos Universales. Números. Enseñanza Primaria.*

Cet article essaye d'analyser les nombres qui apparaissent dans les histoires traditionnelles; pour cela on a choisi dix-sept histoires. L'élection a été faite en combinant différents critères: qui sont des histoires connues, qui apparaissent nombres dans les titres, ou qui sont des histoires de différents auteurs. On a élaboré un listing avec tous les nombres qui figurent dans les différentes histoires dans leur contexte propre, et on a effectué une analyse de ses fréquences. L'histoire où ils apparaissent ou on cite davantage de nombres est «La petite sirène», et les nombres les plus utilisés (en exceptant 1, qui n'exprime pas toujours quantité ou ordre) sont les 2, 3 et 100, dans cet ordre. L'analyse est complétée avec une interprétation de chacun de ces trois nombres.

Mots clé: *Conte universel. Nombres. Enseignement primaire.*

BIBLIOGRAFIA

ARRUE, A. (1956). *Gerriko*, Egan.

AZKUE, R.M. (1969). *Morfología vasca*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

CHEVALIER, J. (1995). *Diccionario de los símbolos*. Barcelona: Herder.

PERURENA, P. (1993). *Euskarak sorgindutako numeroak*. Donostia: Kutxa Fundazio Sozial eta Kulturala.

SAÁ, M.D.(2002). *Las Matemáticas de los cuentos y las canciones*. Madrid: EOS.